



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2017ko urtarrila · 323 alea

TOKIKOM

**HERRIA TXUKUNTZEA
LEHENTASUN**



AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan Ainara Juaristi
- 6 Begira Eulogio Mancebo
- 8 Zer berri Aktualitateko albisteak
- 12 Argazki bidez Argazki lapurtuak
- 14 Plazan Bazan Umeendako jolasak
- 18 Erreportajea Udal-aurrekontuak
- 22 Kirola Motor artean
- 24 Kultura Leteren irakurraldia
- 25 Aisialdia Errezeta, liburua eta diskoa
- 26 Akordatzen Ibaia izoztu zenekoa
- 27 Nondik nora? Silvia María
- 28 Bizitakotik Leire Garcia
- 29 Zerbitzuak Zorion-agurrak, jaioberriak, esker-ona...

Iritzia

- 3 Neuretik Ubane Madera *Iturri txikia*
- 16 Gutunak Elena Pérez *Urtetxo bat*
- 16 Gutunak M. C. *Edonori gerta dakiguke*
- 16 Hausnarketa Zakurren zaintza
- 17 Zir(r)ika P. G.
- 17 Puntua Iñigo Uribetxebarria *Gabonetako loteria Soraluzen tokatu da*



Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaldunon Elkartea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze
Telefonia 943 75 13 04

Erredakzioa
Egoitz Unamuno 605 706 086,
Gaizka Azkarate 686 028 946,
aldizkaria@pilpilean.com
Zuzentzailea Leire Ginea

Publizitatea
Gaizka Azkarate 686 028 946
publizitatea@pilpilean.com
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa Oier Larreategi
Azala Fernan Oregi
Inprimategia Gertu Koop.
Banaketa Pil-pilean Ekolzipena

Lege Gordailua: SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale

Aldizkaria DENON ARTEAN egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak:
aldizkaria@pilpilean.com • 605 706 086

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Iturri txikia



Ubane
Madera

Tokiko komunikabide bateko kazetaria naiz, Goienakoa. Debagoieneko komunikazio taldean bi aldizkari argitaratzen ditugu astero: *Goiena Aldizkaria (GA)* eta *PUNTUA*. GA da, ideia bat egiteko, Pil-Pilean aldizkariaren antzekotasunik handiena duena, egunkari-aldizkari lanak egiten dituen, zerbitzu publiko izaera ere baduena. *PUNTUA* da, berriz, astekari "aldizkariagoa". Gaurkotasunezko gaiak lantzen ditu, beste ikuspuntu batetik, sakonago, patxadatsuago. Zer du horrek berezitasun? Ba zoritxarrez ez gaudela batere ohituta halako gaiak euskaraz, normaltasunez, irakurtzen. Debagoieneko

Iturri txikiak, handiak adina egarria kentzen duela dio esaerak

PUNTUA-k bi urte bete ditu. Etxeotan barikuro oso gustura hartzen den produktu bilakatu da. Hau ez dut esan esatearren. Etxean ikusten dudana zera da: barikuetan ailegatzen naiz GA eta *PUNTUA* ditudala eta etxeoak *PUNTUA* di-da eskuetan hartu, eta goitik behera erreparatzen du. GA-rengatik ez diot galdetzen, GA-ri baino *PUNTUA*-ri erakusten zion tratuarekin bekaiztuta (ze neuk GA-n dihardut lanean batez ere). Baina konturatu naiz neuk ere horixe egiten dudala: sofa harrapatutakoan, *PUNTUA* da irakurtzen dudana, GA astean landu dudalako, bai, baina bereziki *PUNTUA*-ko edukiak erakarri egiten naudelako.

20 urte bete ditu Pil-Pilean Euskara Elkartek. Herriko kontuak euskaraz irakurri ahal izatea amets izatetik errealitate izatera pasa da. Iturri txikiak, handiak adina egarria kentzen duela dio esaerak. Esango nuke izen handiak dituzten egunkariak duten lekuaren zati bat hartu duela Pil-Pilean-ek etxe askotan. Segi beza espazioa irabazten eta irakurleak erakartzen. Euskaldunak eta erdaldunak. Euskara guztiona egiten, praktikoa, baliagarria, egunerokoa... beste hizkuntzen parekoa.

Ainara Juaristi

TESTUA ETA ARGAZKIA: GAIZKA AZKARATE

Hemezortzi urteko plaentxiarrak zortzi urte daramatza Eibar futbol-taldean jokatzen. Gaur egun, Territorial mailan aritzen da, nagusien mailan, eta pasa den denboraldian Eibarko lehen taldearekin debutatu zuen emakumezkoen futboleko bigarren mailan.

Zuk baserrian laguntzen baino denbora gehiago eman duzu baloiarekin... Nondik datorkizu kirolerako zaletasuna?

Txiki-txikitatik etxean jaso dut. Aita kirolaria nuen eta anaia ere bai. Horrela hasi nintzen futboleko jokatzen. Hasieran, *La Sallen* entrenatzera joateko deitu zidaten eta hortik Eibarko futbol eskolara joan nintzen 9 urterekin... gaur arte.

Bederatzi urterekin hasi zinen Eibar futbol-taldean jokatzen. Ez da ohikoa herriko horren gazte ateratzea. Zertan eragin dizu horrek?

Soraluzetik lau lagun joan ginen kanpora entrenatzera eta gurasoekin joaten ginen, berria izan zen. Eibarrera joateak neregan eragin handia izan du, bertan hasi eta hezi naizelako; izan ere, ordu asko ematen ditut taldekideekin, denok helburu berarekin entrenatzen gara eta horrek balore garrantzitsuak ikastera zaramatza. Niretzat ia familia dira bertako entrenatzaile zein taldekideak.

Futbolaria izanda, ezingo duzu parrandan nahi beste ibili... Askok zaintzen duzu zure burua?

Duela urte batzuk arte ez nuen nire burua asko zaintzen eta aukera nuen guztietan ateratzen nintzen parrandan. Gaur egun, aldiz, asteburuetan partidua dudanean lasai eta kontzentratu egotea gustatzen zait, futbola serio hartzeak motibatu egiten nau. Saiatzen naiz fisikoki ondo egoten eta etorri daitekeenerako gertu egotea dut helburu.

Unibertsitateko ikasketak hasi berri dituzu aurten.

Zela bateratzen dituzu futbola eta ikasketak?

Batxilergoan, ikasketak eta futbola oso gaizki uztartu nituen; izan ere, 16 urterekin futbola besterik ez nuen buruan eta ikasketei ez nien ematen eman beharreko garrantzia. Gaur egun, heziketa fisikoko ikasketak egiten dihardut Arrasaten eta, asko gustatzen zaidanez, primeran uztartzen ditut.

Eibarko lehen taldearekin debutatu zenuen iaz.

Aurre-denboraldian igo ninduten goi-mailako taldearekin entrenatu eta lagunarteko batzuk jokatzeke. Denboraldian zehar eurekin jarraitu nuen, eta minutu asko jokatu ez arren, izugarria izan zen. Gogoan dut

kopako finalera iritsi ginenekoa, tentsio handiko partidua izan zen, eta penaltietan galdu genuen Añorgaren aurka.

Zer garrantzi izan du zuretzat?

Momentuan ez nintzen konturatu zuen garrantziaz. Denboraldia amaitu eta berriz ere nire taldera bueltatu nintzenean ohartu nintzen bizitakoaz. Aurten entrenatzailea aldatu dute eta beste jokalaririk batzuegan jarri du konfiantza.

Hain gazte lehen taldearekin jarduteak beldurtu zaitu inoiz?

16 urterekin hasi nintzen lehen taldearekin entrenatzen eta hasieran beldurturik nengoen. Nire buruarengan konfiantza izateko, ondoan beste pertsona bat behar izaten nuen, laguntzeko, eta orduko entrenatzaileak hori ez zidan eman. Beraz, urte osoa eman nuen nire gaitasunean guztiz sinetsi gabe. Etxean aitak laguntzen dit gehien, baina berdegunean entrenatzaileak eman behar dizu bultzada hori.

Zelakoa da emakumezkoen futbolaren egoera?

Eibar klubaren barruan, territorial taldea ez da asko aldatu, baina aurten lehen taldeak, adibidez, Ipuruan jokatzeke aukera izan du eta horrelako gauzak motibagarriak dira futbolariarentzat. Bestalde, emakumezkoen futbola ari da pauso txikiak ematen eta poliki-poliki talde gehiagok jokatzen dute. Gainerakoan, aldaketak poliki doaz.

Zein dira emakumezkoen futbolaren ezaugarri erakargarrienak?

Emakume futbolariok nahi dugunagatik borrokatzen dugu, zailtasun guztiak gaindituz, hori da ezaugarri nagusia... Emakume futbolari gehienek ez dute soldatarik kobratzen eta guztiak uztartu behar dituzte lana eta futbola. Gizonezkoetan gaztetatik hasten dira dirua irabazten futboleko jarduteagatik. Nesken futbola oso gutxi baloratzen da.

Zer iritzi duzu futbolaren bueltan sortu den burbuilaren inguruan?

Beti izan dut horrekiko iritzi negatiboa, lekuz kanpo dagoen zerbait dela iruditzen zait eta pentsatzen dut gizaritari min handia egin diola. Saiatzen naiz kasurik ez egiten. Etxean, anaia futbolaria dut, bigarren B mailan dihardu eta soldata baten truke jokatzen du. Horrek aukera ematen dio ikasketak utzi gabe, egunerokoa bizitzeko. Emakumeen futboleko lehen mailako askok imaginatu ere ezin duten zerbait da hori.

LABURREAN

Musika-talde gustokoena? Partiduetara bidean musika martxosoa...

Amets bat? Euskal Selektzioarekin jokatzea.

Erreferentea? Nire anaia, beti izan da erreferentea niretzat.

Telesail gustokoena? Raices, esklabutzari buruzkoa.

Zerk pozten zaitu? Etxekoak ondo daudela jakiteak.

Zure ezaugarri bat? Erabakiak hartzea kostatzen zait.

Gustuko leku bat? Saturraranekeko hondartza.

Futbolari erreferente bat: Irati Lazkano, 17 urterekin selektzioara iritsi zen, lan asko eginda.





Atxuriko izotz-kandelak

ARGAZKIA: EULOGIO MANCEBO
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Hotz handia egin du urtarrilean. Merkurioa zero azpitik ibili da gau askotan, eta dezenteko izotzak bota ditu. Eulogiok goiz batez Atxuriko iturrian atzeman zituen kandelak argi erakusten dute hori.

Adinean gora doazenek jakin badakite hotzaldi hau “huskeria” dela 1971n ibaiko ur-jauziak ere izoztu zitueneko harekin alderatuta. Ostera, beste askori, “azken urteotako hotzaldirik handiena” irudituko zaie, eta “inoizko hotzena”, beharbada, etxea berotzeko modurik ez duenari.



Pascual Churrucako argiak itzaltzeaz

Joan zen astean, enpresako arduradunek baieztatu zuten aspaldian herrian zabaldua dagoen albistea: azkenean, Pascual Churruca lantegia itxi egingo dutela. Azken fase honetan, itxiera kudeatzen diharduen langileetako batek adierazi digunez, egunotan administratzaile konkurtsalak enpresaren likidazioa bideratzen dihardu, eta entregatu beharreko eskariak entregatu ostean, “Pascual Churruca lantegiaren ibilbidea amaitu egingo da”. Datozen asteetan langile gutxi batzuk batzuk jarraituko dute lanean. Guztira hogeita hamar langile inguru dira langabezian geldituko direnak, gehienak soraluzetarrak. Gutxi batzuek, adinagatik, aurrejubiliazioaren bidea hartu zuten lehenago edo hartuko dute etorkizunean, baina gainerakoek beste nonbait aurkitu beharko dute lana.

Debabarreneko langabezi-tasarik altuena

Abenduaren 31n kaleratu ziren datuen arabera, Soraluzek %15eko langabe-tasarekin amaitu zuen

iazko urtea. Langabe-tasak behera egin bazuen ere (0,5 puntu), Soraluzek du Debabarreneko tasarik altuena, batz-bestekoa baino ia hiru puntu gehiago. **Debegesako enplegu-mahaia** Udal gobernuak adierazi du Pascual Churruca ixtea “oso albiste txarra” dela herriarendako, herriak duen egoera sozioekonomikoa oraindik eta gehiago larriagotuko duelako. Alkateak esan duenez, “oso kontziente” dira egoeraz, eta, besteak beste, horregatik erabaki zuten legegaldi hasieran “Garapen Ekonomikorako Batzordea” sortzea, hala ere, adierazi dute orain arte “margen txikia” izan duela. Alkateak adierazi du, Debegesak iaz sortutako enplegu mahaian parte hartzen jarraituko dutela, gainerako udaletako, Aldundiko eta Jaurilaritzako ordezkariekin batera, eta ahaleginduko direla erakunde horiekin “aliantzak” bilatzen. Gaur egun, Udalak kontratazioak egiteko plus bat jasotzen duela azpimarratu du, baina aitortu du horrekin ez dagoela “egoerari buelta ematerik”.

Merkatuko postua zozkatuko da

Udalak Merkatu plazako salmenta-postuetako bat zozketa bidez esleitu nahi du Udalak eta otsailaren 16ra arteko epea eman du interesdunek eskaerak aurkez ditzaten. Salmenta-postuaren kanona hilean 122,28 eurokoa izango da, eta emakidak bost urteko iraupena izango du.

Korrika Soraluzetik apirilean

Apirilaren 7an, barixakuan, gaueko 00:00ak aldera igaroko da Korrika 20 Soraluzetik. Aurrez Eibartik (22:43) etorriko da eta Bergarantz (00:22) jarraituko du Beasain aldera. Otxandiotik abiatuko da 20. Korrika martxoaren 30ean eta Iruñean bukatuko da apirilaren 9an.

Liztorren 19 habia deuseztatuta

Iaz Debemenek hemeretzi liztor-habia suntsitu zituzten herrian, Foru Aldundiak liztorra deuseztatzeko helburuarekin bultzatu zuen kanpainaren barruan. Aipatutako lanen kostua 1.379,40 eurokoa izan da, habi bakoitzeko 60 eurokoa. 2014an 14 deuseztatu ziren eta 2105ean 9.



Herriko artista ugari hartu zuten parte, abenduan prozesua abiatzeko antzokian antolatutako zuzen ikuskizunean.

Herri-galdeketa maiatzaren 7an



Gure Esku Dagok jakinarazi du estatus politikoaren gainerako galdeketa maiatzaren 7an egingo dela Soraluzen, Debabarreneko gainerako herriekin batera (Eibar, Elgoibar, Mutriku, Deba eta Itziar). Datozen asteetan herrian egin beharreko galdera adosteko

prozesu partehartzailea jarriko dute martxan eta galdera adostu ostean, soraluzetarren %10aren (400 pertsona) sinadura bidezko babesak lortzeko ekingo diote. Bide batez, galdeketa berri eman eta herritarrek parte hartzerantz animatuko.

Lapurretak Etxaburuetan eta haur eskolan

M.C. herritarrek salatu duenez, joan zen astean, “etxean inor ez zegoela aprobetxatuz”, lapurrak Etxaburuetako etxe batean sartu ziren. Atzo goizean, berriz, haur eskolako hezitzaileak konturatu ziren jolastokiko etxola zabalik

zegoela eta umeendako jostailuak (trizikloa, motorra...) falta zirela. Hilabete hasieran beste bi lekutan ere egin zuten lapurretan: futbol-zelaiko tabernan eta Ezoizbideko bi autotan.

Mendiolako inausketak



J. M. herritarrek kexa helarazi digu Udalak Mendiola industrialdearen sarreran egin berri duten inausketaren inguruan: “Zergatik egin da hain inausketa muturrekoa, herri sarrera edertzen zuen zuhaizti batean?”. Udalean galdetu, eta alkateak honela erantzun du: “Bizilagunek eskatuta, ingurua garbitzeko lanak abiatu ditugu. Aurretik ere egin dira halako inausketak, eta zuhaitzek inongo arazorik barik errekuperatu dute lehengo itxura, denbora laburrean, gainera”.

Ezinduendako aparkalekuak

Herritar batek bere kexa helarazi digu Arraikuan ezinduendako egokitu diren bi aparkalekuen erabilera dela eta: “neu izango nintzateke lehenengoa, behar duenari aparkalekua ematen, baina aparkalekuak ezarri eta gero, ez erabiltzea, ez zait ondo iruditzen. Eskatuko nuke, behar dituenak aparkalekuok erabiltzea”.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: aldizkaria@pildilean.com
943 75 13 04

zurekin SORALUZE EUSKALDUNAGO



“Garrantzitsua iruditzen zait bertako kultura jende gaztearekin sustatzen duen erakunde bati laguntzea”

ALEX ROS ZABALA, 40 urte



“Egunerokotasunian euskeraz bizi garanok Euskeriakin tope egiten jarraitzeko”

MARTIN AZKARATE, 26 urte

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE**



943 75 13 04 / 605706086
koordinazioa@pilpilean.com



Bizikaleko saria Gantxegi ahizpendako

Bizikalek urtarrilaren 13an zozkatu zuen gabonetako saskia. Zenbaki saritua 1211 izan zen eta 2.000 euroko balioa zuen produktu sorta Itziar eta Urrategi Gantxegi ahizpei

egokitu zitzaion. Bizikalek eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, herriko komertzioetara kontsumitzearen.



Itxaropenako sarituak

Karta-txapelketako sariak banatu zituzten abenduaren 21ean Itxaropenan antolatu zuten Gabonetako ospakizunean. Honakoak izan ziren irabazleak: Mari Tere Iñarra eta Mariapi Peñin briskan, eta, Ignacio Alberdi

eta Jose Antonio Calles tutean eta musean. Bestalde, Itxaropenak jakinarazi du, 100 urte betetzen dituela eta, otsailaren 1ean, 12:00etan, Ignazio Ernabideri omenaldia egingo diotela.

Frontoiko etxeak esleitzeko oinarriak

Frontoi kaleko 5. zenbakian dauden bost udal-etxebizitzak alokairuan emateko oinarri berriak onartu ditu Udalak. Aurten alokairu-kontratuen 5 urteko gehienezko epea bete denez gero, Udalak iragarri du datozen hilabeteetan deialdi publiko berria egingo duela.

Aratosteetan mozorrotzeko gaia, “musika”

Musika izango da aurtengo aratosteetan mozorrotzeko gaia. Aurten ere egingo da lehiaketa baina beren beregi lehiaketarako osatutako epaimahaiaren iritziak pisu handiagoa izango du. Otsailaren 24, 25 eta 28a izango dira ospakizun egunak, aurten herriko aratosteetan.

Bi zakurrek eraso bidegorrian

Joan zen astean gertatu zen eraso, bidegorrian, Carmelo Mendizabal lantegiaren parean. Alemaniako bi artzain zakurrek eraso egin zioten schnauzer arrazako zakur txikiari, eta eragozten ahalegindu zen bere jabeari ere bai. Zakur txikia hil egin da eta jabeak salaketa jarri du.

Lapurtutako argazkiak



Alberto Arizaga



Mikel Valero

ARGAZKIAK: ALBERTO ARIZAGA & MIKEL VALERO
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Kontrargik erakusketa berezia antolatu zuen abenduan. Ikusgai jarri zituzten Mikel Valero eta Alberto Arizaga argazkilariek "lapurtutako" 30 argazki, eta bisitari kopurua ohikoa baino askoz handiagoa izan da: 406 bisitari.

Argazkietan herritarrak ageri dira, eguneroko zereginetan, egoera arruntetan: lanean, txikiteoan, kalean... Argazki "sinpatikoak" dira, "hurrekoak", egileen esanetan.

Aspalditik zuten gogoa "halako zer edo zer" egiteko; "aproba egin nahi genuen, ea jendeak zela erreazionatzen zuen, eta demostratuta gelditu da hurbileko gaiak direnean, jendeak erantzuten duela". Argazkilariek bereziki eskertu nahi dute argazkietan azaldu diren herritarren jarrera.



Plazan Bazan

Plazan Bazan etxeko txikienei bideratutako gunea da, jolaserako proposamena. Lehen aldiz, tokiko hainbat aldizkarik bat egin dute umeei bideratutako eduki berbera sortu eta zabaltzeko; Euskal Herriko umeei euskaraz jolas egiteko aukera izan dezaten euren tokiko aldizkariaren bitartez.

Laster, nobedade gehiago: Ikusbera jolas-liburuxka, Plazanbazan.eus webgunea...

Bultzatzaileak: Tokikom (Euskarazko Tokiko Komunikabideen Bateragunea) Pil-pilean Euskara Elkartea Kukumixo

Material egilea: Garbine Ubeda. Aiurri (Andoaingo komunikabidea).

Kontsultatu soluzioak: plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

Zorri gogaKarriak

Ain ene, hori azkura. Orrazia pasa eta pasa, baina halere, hamarretik sei zorri harrapatu ditu, eta lau libratuko egingo dira. Zeintzuk?



Osatu esaera zaharra:

ABENDUKO EGUNA

- ASPERGARRI ETA TUNTUNA
- ARGITU ORDUKO ILUNA
- BETI DA HOTZ ETA LIZUNA
- OLENTZEROREN KUTUNA
- ELURZALEEN LAQUNA

Labirintoa

Lagundu igelari urmaelera heltzen. Zomorroak dituzten laukietatik pasatuz, gora, beheara, ezker edo eskuinera jo, baina ez diagonalean.

Sudokua

Bete zuriz dauden laukiak 1etik 6rako zenbakiak erabiliz. Gogoratu zenbaki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

1	2		5	6
4				1
			3	5
	3	6		1
	5			3
3	2	6		

Aibala!

Zomorroa naizela badakizu ondo, baina **INTSEKTU** ez naiz ta ez naiz izango, aldea zein ote den dizuet esango: intsektuek dituzte **HIRU** pare zango.

Arraioa, zenbat hanka ditu ba alu horrek!

Egin gurutzeta laukian, erantzun zuzenari.

- Armiarmak begiak adina zango ditu.
- Lau pare zango.
- Guztira hamar zango.

Urtebetetxo!

Senideekin eta batez ere urruti dauden lagunekin idatzizko harremana mantentzeko ohitura onaz gozatu izan dut beti. Eskuz idatzitakoa urte askoan (haiek sasoiak!) eta garaiko teknologia erabilia gero. Erraza izaten da paperera edo pantailara ekartzeko gertukoren batendako edozein gauzatxo. Lagunei epaitua izateko beldurrik gabe idazten diegu eta horrek dakar egindako ariketa terapia emozional onuragarria eta gomendarria izatea.

Inoiz ez nuen usteko argitara emateko ezer idazteko gogorik izango nuenik, ezta zentzuz eta ordenean jarritako bi esaldi ere, harik eta, duela ez hainbeste, lagun batzuen talde-lana omentzeko neure burua behartu nuen arte. Kotxeko azterketa praktikoan baino urduriago egon nintzen (orduan berna-hezurrek ere dardara egiten zidaten, gomazkoak balira moduan), baina ez zer idatzi ez nekielako, irakurleen epaiaren beldur nintzelako baizik. Eskerrak argitalpen egunek agintzen duten eta testua bukatutzat emateko eguna heldu zen; bestela, hementxe jarraituko nukeen, bueltaka, nire

arrastoak ezabatu nahirik, halakorik ezin den arren.

Badirudi atzo zela eta urtebete joan da abenturari ekin genionetik. Gabon giroko goiz hartan ez zeukan izenik ere baina ez genuen asko behar izan izena jartzeko, gure zuzendariak motibatuta: CALIPSO, Soraluzeko literatur kafea. Ezin zuen beste izenik hartu. Taldea aberasten duen kideetakoren bat herrikoa ez izan arren, hementxe sortu zen.

Inoiz ezingo diot CALIPSOri eskertu eman didan bultzada. Idatzi dudana apurra ez da emaitzagatik sentitu dudana ikaragarritzko poz eta harrotasunaren neurrikoa. Eskerrak asko lagunak!

Idazten dudanak nik nahiko nukeena baino gehiago esaten duela nitaz? Hala da! Hauskor sentiarazten nauela? Hala da! Zer egingo diogu ba? Sentimendu askoz txarragoak jasaten ditut eta hementxe jarraitzen dut. Hortaz, hauek ere motxilan eraman ahalko ditut.

Idazteak sabelean harra sortzen badizu, edozein arlotan ere, ez zalantzarik izan: CALIPSO lekutxo daukazu!

Elena Pérez

Edonori gerta dakiguke

Soraluzeko bizilagun bat naiz. Aurreko astean amaren etxean lapurrak sartu zirela salatu nahi dut. Ama egun batzuez etxean ez zegoela aprobetxatu zuten. Ez da kasualitatea izan. Ongi zekiten etxea libre zegoela eta lasai asko sartu ziren.

Mezu honen bitartez, salaketa egin nahiko nuke. Soraluzetar guztiak adi mantendu daitezten eta jakin dezaten ekintza miserable hauek oraindik gertatzen ari direla, bai herriko taberna eta dendetan, eta baita etxebizitzetan ere. Ez da beldurra zabaltzeko mezua. Muturren aurrean dugun eguneroko errealitate zikina erakustekoa baizik.

Ez dakit zein den arazo honi aurre egiteko modua; dakidan gauza bakarra da, hau jasangaitza dela. Edonori gerta dakiguke.

Besarkada bat.

M. C.

Bidali gutunak aldizkaria@pilpilean.com helbidera

P.G.



Iñigo Uribeberria

Gabonetako loteria Soraluzen tokatu da

Ba, bai, albisteak ez du oihartzun handirik izan eta inor gutxi enteratu da. Soraluzeko herriari, zehazki, 5.580.819 € tokatu zaizkio. Eta hau da denon galdera: nor da, ba, zorte hori izan duena? Ba, gu guztiok gara zortedunak, denoi tokatu zaigu 5 milioi euro eta erdiko zorra ordaintzea. Bai, bai... zorte txarra izan dugu. Herritarrok ez dugu dirua poltsikoratuko, ordaindu baizik, eta 35 urte izango ditugu horretarako.

5 milioi euro eta erdi ez da gutxiesteko moduko zifra, oraindik eta gutxiago, herriari ezkutatzekoa. Eta zor hori gutxi balitz, sinatuko den kontratuak ere baditu hamaika arantza; izan ere, ordaindu beharreko zor horrek lehentasuna izango du beste guztien artean, aurrekontuak ez dira onartuko zor hori kitatzeko dirurik ez badago...

Kontratu hori sinatzeko asmoa duen soraluzetarrak (azkenean sinatzen badu) jakinarazi al ditu datu horiek, eman al du publikoki horren berri? Eztabaida kaleratu al du? Egin behar luke, baldin eta hitzeko pertsona bada. Kalte gehiegi bailekarke, zaborra behar bezala kudeatuz gero, beharko ez genukeen erraustegi bat egiteak.

Zakurrak eta zaintza

Joan zen astean, bi zakurrek eraso egin zioten bidegorrian zakur txiki batekin paseoa zihoan herritar bati. Gertaerak oihartzun handia izan du herritarren artean eta zaintzaren gaia mahai gainera ekarri du.



Andoni Calles
ARRAZA
ARRISKUTSUA
ELKARTEKO KIDEA

Batzuen deskuiduek eragin handia izaten dute besteengan. Nik arraza arriskutsua kontsideratzen den txakur bat daukat eta egunero ahalegintzen naiz legeak errespetatzen batez ere animalien eskubideak hobetzeko asmoarekin. Elkartetik legeak betetzeko deia egiten dugu, batez ere, arraza arriskutsuak direlako galtzeko gehien dutenak.



Mari Cruz Gantxegi
EUSKADIKO TXAKURREN
SALBAMENTU TALDEKO
BOLUNTARIOA

Txakurrak beraien artean zein gizakiekin harremanak izateko hezi egin behar dira eta ingurugirora egokitzeko lanketa egin behar da. Txikitatik arau batzuk ezarri eta jarrera eredu baten arabera haztea garrantzitsua da. Bidegorrian gertaturikoa esango nuke heziketa oker baten ondorioa dela, ez delako animalia jarrera ohikoa. Gakoa, animalia zentzudunak lortzea da.



Gotzon Odriozola
UDALTZAINBURUA

Txakurren jabeak esan digu leku itxi batean askatzen dituztela baina dirudienegiz ihes egiteko zirrikitu bat aurkitu zutela. Legeak kalean txakurrak lotuta eramatera eta kakak batzera behartzen ditu jabeak eta arriskutsuak izan daitezkeen ahokoa ere eraman behar dute. Legea betetzen ez duenari udal txakur espediente bat zabaltzen zaio. Kexa gehienak txakur-kakak ez jasotzeagatik izaten dira.



Olatz Sebal
HERRITARRA

Gertaturikoa izugarria iruditzen zait. Duela gutxi denik ama naiz eta bidegorrian umearekin pasian ibiltzen naiz askotan. Albistearren berri izan nuenean, pentsatzen jarri nintzen txakurrak niregana oldartu izan balira zer gertatuko litzaidakeen. Egia esan salduta zaude bidegorrian horrelako egoera baten aurrean. Horrelakorik berriz ez gertatzeko arauak betetzea eskatuko nuke.



4.399.642 euro 2017rako

Inbertsio berrietarako dirua bikoiztu egin da aurten eta zatirik handiena hirigintzako azpiegiturak konpontzera bideratuko da.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Abenduaren 22an, udalbatzak onartu zituen 2017rako aurrekontuak, jeltzaleen eta sozialisten aldeko sei bozekin eta EH Bilduren kontrako bost bozekin.

Iazko aurrekontuekin alderatuta, aurtengo aurrekontua % 6,10 altuagoa izango da, eta inbertsioetarako diru-kopurua ere nabarmen handiagoa da. Aurten inbertsioetara 471.751 euro bideratuko dira, iaz bideratutakoaren ia bikoitza.

Bestalde, zorpetze-maila jaitsi izanak, orain eman dio aukera Udalari inbertsioetara diru gehiago bideratu ahal izateko. Izan ere, azken bederatzi urteotan udalaren zorpetze-mailak %64 egin du behera: 2008an, udalaren zorra 2.347.000 eurokoa zen, 583 euro biztanleko eta 2017an, 825.000 eurokoa izango da, 209 euro biztanleko. Udalak aurten 144.000 euroko mailegua eskatu du (zorpetze-maila eten barik).

Inbertsioak azpiegituretan

Udal Gobernuko ordezkarien esanetan, aurtengo aurrekontuak gastu arrunta eta eragileendako diru-laguntzak mantendu ditu, eta "nobedade nagusia" inbertsioak izango dira. Zatik handiena hirigintza eta azpiegiturak hobetzera bideratuko da: 90.000 euro Gabolatz eta Calonge kaleetan irisgarritasuna bermatzeko, 60.000 euro herrigunearen mantentze-lanetarako, 58.000 euro landa-garapenerako (Agarre baserrirako bidea, mendigaina...), 45.000 euro Ludoteka

eta Gaztelekua zaharberritzeko, 41.000 euro kiroldegiko konponketetarako... Bestalde, zenbait egitasmo sozial garatzeko diru-partidak ere izango dira: 54.000 euro hezkuntza proiekturako, eta 26.000 euro ongizate alorrerako. Udal Gobernuaren esanetan, "aurrekontuan, lehenasuna eman zaio lehendik martxan ziren zerbitzuak hobetzeari, eta ez horrenbeste proiektu berriak planteatzeari".

EH Bilduk aurka

EH Bilduk aurrekontuen aurka bozkatzeko izan dituen arrazoien berri eman du. Koalizioaren ustez, Udal Gobernuak aurrekontuak aurkezteko erabili duen prozedura "ez da egokia" izan, "aurrekontuak udalbatzordeetan eztabaidatu gabe" aurkeztu dituelako. Bestalde, EH Bilduk salatu du Udal Gobernuak ez duela aurrekontuak adosteko borondaterik izan, eta horren adibide, aipatu du oposizioak egindako proposamen gehienak baztertu izana: alkatearen soldata 30.000 eurotan murriztu eta diru hori futbol zelairako bidea argiztatzeko erabiltzea, DBHko eraikina berritzeko 6.000 euro bideratzea, eta energia arloko eta Alkarrekineko beharrian larrien egitasmoak koordinatzea, 40.000 euroko partidarekin. Udal gobernuak oposizioaren proposamen bakarra onartu du: bizikletak garbitzeko zerbitzua egokitzeko 3.000 euro bideratzea.

“Herritarrek eskertzen dute hurbiltasuna” Iker Aldazabal

Legegintzaldiaren erdialdera hurreratzeko ari gara eta, Iker Aldazabal (alkatea) eta Patricia Borinaga (alkateordea) elkarrizketatu ditugu. Zein balorazio egiten duzue orain arte egindakoaz?

I. Akordioa egin genuenean esan genuen; gu ez gara etorri ezer apurtzera. Hobetu daitezkeenak hobetu eta orain arte ondo zetorrenari bide eman diogu.

Legealdiko zein ekimen azpimarratuko zenituzkete?

I. Ekimenak baino gehiago, jarrera azpimarratuko nuke. Herritarrek udaletxera edozein zalantza edo kexa ekartzen dutenean, ahalegintzen gara ahalik eta bizkorren erantzuten. Nik uste, herritarrek eskertzen dutela hurbiltasun hori.

P. Iker egun guztian, eta ni astelehenean, udaletxean egoten gara. Ateak zabalik daude. **Muralak ezabatzeak eztabaida piztu du.**

I. Edozein herritarrek baimena eskatu dezake eta eskaera horiei bide ematen zaie. Ez duguna ondo ikusten da, norberak pentsatu eta egitea. Udal gobernu honen lehenengo lana herria txukuntzea izan da, ikuspegi orokor batetik, ez bakarrik muralak.

P. Ez da burugogorkeriagatik. Adibidez, zubiko zebraidea margotzen jardun nuen nik ere. Egia da zerbait pareta hobeto daudela margotuta, baina etorri, eskaera egin, eta berba egingo dugu. **Alkarrekin aurrera egin arren, parte hartzea jeitsi egin da.**

I. Prozesu hauetan pasatzen den moduan, hasieran indar handiagoa izaten du eta gero poliki-poliki



“Alkarrekin zehaztutako proiektuak hartu ditugu legealdiko plangintza moduan”

beherantz egiten du. Pena da, baina gure asmoa prozesuarekin jarraitzea da. Udal gobernu honek Alkarrekin zehaztutako proiektuak hartu ditu legealdiko plangintza moduan.

Zelakoa da oposizioko alderdiarekiko harremana?

P. Egunerokoa ona da. Dena mahaigaineratzen da batzordeetan eta plenoetan, baina plenoetan ez da galderarik egiten eta gero kalean ez dakit zer pasatzen den.

I. Plenoetan gai gehienak aho batez onartzen dira. Zein ez? 2017ko aurrekontuak. Estrategia politikoa bat da. Ez genuen entzun aurrekontuetan jasotzen den proiektu bakar baten kontrako hitzik.

Zein ezaugarri nagusi ditu aurrekontuak?

I. Oinarritzko egitura eta dirulaguntzak mantendu dira eta aurten inbertsioetarako margena handiagoa da. 140.000 eurotako mailegua eskatu dugu, zorpetze-maila igo gabe.

P. Joan zen urtean ez zen mailegurik eskatu baina aurreko hiru urteetan ere eskatu zen.

Zein dira proiektu nagusiak?

I. Gabolatsen espaloiak eta Kalongen eskailerak kentzea, umeen parkeak berritzea, mendigainari bultzada ematea, hezkuntzan teknikaria kontratu eta akzioterako baliabideak bideratzea...

P. Ludoteka eta Gaztelekuaren modeloa aldatuko dugu. Ludotekaren egoitza berritu eta kiroldegi gaina egokituko ditugu. Herrian ez dago gauza asko ume eta gazteentzako, eta, behintzat, dagoena izan dadila ona. ***Elkarrizketa osoa ikusgai Plaentxia.eus-en.**

Armendi Jatetxea
Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko fritokak
Souffléa
Tel.: 943 75 10 02

Batzoki
Jatearen plazarrak, bertatik bertara
eguneko menua
karta eta txakorak
opartekoen eta
herbergien
enkaratu bereziak
Berrak
Berrak eta
lagun artiko
bertarak
Errezibak: 943 75 20 34

BOLIT TABERNA
Pirxoak, ardoak,
kombinatuak
Gazte-giroko festa
Tel.: 943 02 95 02

EDURTZA taberna
Opatariak, txakorak,
harburginak, pirxoak eta pizza
Petata txikiak egiten dira enkaratu
Santa Ana 18
Tel.: 943 75 13 83

IZAGUIRRE
Igeltzeritza
Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza
50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 640 867 289

Hortz klinika
27 urteko esperientzia
Inker Alamo
Medio/Ortopediako
K.2. 20000/491
Karlo Guzmán
Ortopediako
K.2. 49.001/491
Inker: gaitxo anestesio,
odontologia orokorra,
gaitxo lirioa eta mugimendu,
odontopediatria, ortodontia,
epitaxiak, estetikak...
Errezibak 1 - Tel.: 943 75 30 13

Mendata
Enkaratu egiten dira
Eramateko prestaketa da
Menu bereziak enkaratu
Tel.: 943 25 74 52 / 650 75 40 60

MABEL
ILU/PAIN/INDEGIA
- Berrantzikako keratina
tratamendua
- Depilazioa
- Ilu-azulak gabeko
permanentea
- Makilajea
- Manikura
- Entzikonak
- Solarizua
Errezibak 1
Tel.: 943 75 54 89

Kontulan
abokatuak
Errenta, albarperenak, Administrazioaren
Tratamendu berrak, Lan-erlako aholkularitza
Enpresen konstituzio/indulgentziak, Kontabilitateak
Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorluze
Tel.: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

TXURRUKA JATETXEA
Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31
SUTLONDO
KAFETEGIA OKINDEGIA
LABADEROKUA Eguneroko 06.00etatik
Kafea, opilat, ogia,
pirxoak, ardoak...
Gazte EIBARKO
PREZIOARIK ONENEKIN!

ALKARRI
elkartas
www.alkari.org
627 75 157
- Informatikaren prestakuntza eta aholkularitza
- Edo herri-herriko proiektuak eta txakor programen garapena
- Edo herri-herriko proiektuak eta txakor programen garapena
- Edo herri-herriko proiektuak eta txakor programen garapena

P **Iragarri hemen zure negozioa**
Pil-pilean herri komunikabidea
686 028 946 (Gaizka) · publizitatea@pilpilean.com

Euskalzaletasunaren alde:



Motorrak elkartu dituen bi plaentxiar



Unai eta Gorka Opel Manta autoarekin. ARGAZKIA: GAIZKA AZKARATE

Gorka Bollar (1985) eta Unai Prol (1991) urtarrilaren 8an Amorebietako AIDAE rallya klasiko proba korritu zuten. Bollarentzat bigarren lasterketa izan da hau eta Prolentzat lehena; bie txikitatik datorkie motorrerekiko zaletasuna. Bollarrek duela 7 urte erosi zuen Lleidan jatorriz frantziarra den 1976ko Opel Manta autoa. Bata bestearen zaletasunaren jakitun ziren eta behin parrandan elkartu ziren bata kopiloto bila eta bestea probatzeko prest.

Erregularitasun rallye klasikoak Proba hauek bi berezitasun nagusi dituzte; alde batetik, kotxeak 25 urtetik gora izan behar dituela eta bestetik bi punturen artean dagoen distantzia antolakuntzak emandako denborara gehien hurbiltzen duenak irabazten duela.

Lehena, Amorebietan Rallya klasikoak AIDAEk antolatzen du, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen alde lanean diharduen elkarteak, eta aurtengoa hirugarren edizioa izan da, baina plaentxiarrek elkarrekin korritu duten lehena. 81 autok hartu zuten parte eta sailkapenean 46.nak izan ziren Gorka eta Unai. Lasterketa osatzen zuten bost zatietako (guztira 72km) bitan arazo tekniko batzuk izan zituzten, baina orokorrean, esperientzia izugarria bizi izan zutela esan digute: "Oso pozik gaude egindako lanarekin eta asko ikasi dugu. Lasterketaren ostean, pilotu guztiak batera bazkaldu genuen eta asko gozatu genuen bertako giroaz". Plaentxiarrek ekainean korrituko dute hurrengo rallye Azepeitan.



Perez quad offtrack-eko txapeldun

Aritz Perez pilotuak, 2016ko Gaztela eta Leongo quad offtrack txapelketa irabazi du Q2 mailan. Perezek txapelketa borobila egin du zazpi lasterketatik bost irabazita.

Ezozki eta Garazi Euskadiko txapeldun

Ezozki Akizu eta Garazi Catalanek Euskal Herriko kopa irabazi dute Eibarko Urbat3H waterpolo taldearekin. Finalean 7-1lko emaitzarekin hartu zituzten mendean Iruñako Wp9802 taldeko neskek. Ezozki eta Garazik hirugarren urtea dute waterpoloan jokatzeko.

Herriko futbolarien kromo bilduma

Soraluze futbol-taldeak 2016-2017 denboraldiko futbolarien kromo-bilduma argitaratu du. Kromoak eta albuma Tanger, Iratxo, Txoko eta Kulunka gozotegietan eta baita Ezozki futbol-zelaiko tabernan eros daitezke euro baten truke. Benjaminetik hasi eta gorengo erregion mailarainoko jokalariei eta entrenatzaile guztien bilduma egiteko aukera izango da.

KLB6
Kalebarren 6
943 75 71 20
Makina-erremak
modulak
f
www.klb6.com

Biga Jume
MILEND
MAYSON SCOOTER
DREZ
HUNDO
VERO MODA

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak
img. 635 71 34 08

TXURITXU GOZOTEGIA
Tel. 943 75 24 43

Badatoz San Blasak!
Enkarguak hartzen ditugu

K
EUSKO LABEL
Eusko Labela
Euskal Oleria
Cantabria
Asturias

Denda
- TIENDA ESPECIALIZADA -

Favier Alberdi
ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32

TXOKO
KAFETEGIA

Eguneko menua,
razioak, plater
konbinatuak,
hamburgesak,
ogitartekoak,
gosaria, pizzak...

Kalebarreneko
kafe kartolan
Tel. 943 75 17 89

Enkarguak
egiten dira

AURREZTU ENERGIA

Berota eta BIOMASA ETA
EGURREZKO galdarekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

MENDIZABAL
okindegia
Ogia - Prentsa - Gosarik

Asteheneretik
ostirera:
09:00 - 13:15
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
igandeak
08:00 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

OSTEGUNETAKO PELIKULAK

Gaueko 9:00etan Antzokian

TARDE PARA LA IRA
OTSAILAK 9

Zuzendaria: Raúl Arévalo
Herrialdea: Espainia
Urtea: 2016
Iraupena: 92 min
Hizkuntza: Gaztelania

UN MONSTRUO VIENE A VERME
OTSAILAK 23

Zuzendaria: J. A. Bayona
Herrialdea: Espainia
Urtea: 2016
Iraupena: 108 min
Hizkuntza: Gaztelania

SORALUZKO UDALA
Kultura Batzordea



Durangoko Azokan emanaldia eskeini zutenekoa.

Leteren poemei harpa jotzen dien emanaldia

San Blas egunean, Xabier Leteren poemak oinarri hartuta, harpa-musikaz lagundutako irakurraldi dramatizatua eskainiko dute antzokian. Ane Artetxe harpistak, Amaia Ruiz de Galarretak eta Amaia Irazabal aktoreak hitzak, musika eta antzerkia uztartuko dituzte hiru ordu laurden inguru iraungo duen emanaldian.

Artetxek kontatu digunez, gustuko du harparekin inprobisatzea, aktoreek poemei ahotsa eta mugimendua ematen dioten bitartean eta zera azpimarratu du: "Gure helburua da publikoarengan bestelako sentsazioak sortzea". Saioaren zatirik handiena Xabier Leteren poemekin osatuko dute, "euskar kulturaren erreferentzia nagusienetakoa delako" eta bere poemek "sekulako indarra" dutelako.

Emanaldiak iaz Durangoko Ahotsenarako prestatu zituzten testu-irakurraldietan du jatorria. Orduko hartan, hainbat idazle ezagunen testuak hartu zituzten

lehengaitzat, jendaurrean musikatu eta interpretatzeko. Publikoaren aldetik jaso zuten harrera onak bultzatuta, erabaki dute orain, era honetako emanaldiak herriz-herri eskaintzen hastea, eta ibilbide berri honen abiapuntua izango da Soraluze. Gaztelupeko Hotsak eta Pil-pilean Euskara Elkarrekin gonbidatuta etorriko dira. **Jokin Oregiren Facebookeko testuak**
Emanaldia tokian tokiko herritarrengana hurreratzeko asmoz, Jokin Oregi soraluzetarraren hainbat testu ere txertatuko dituzte emanaldian; azken urteotan facebooken argitaratu dituen zenbait mikropipuin. Horrez gain, Amaia Irazabal aktorearen beraren testuak ere errezitatuko dituzte.

HITZORDUA

Otsailak 3, barixakua
22:15etan
Herriko antzokian

Don Ascensioaren obra dohaintzan herriari

Iñigo Alberdik Ascensio Gurrutxaga musikariaren obra guztia eman dio dohaintzan udalari, honek katalogatu eta herritarren eskura jar dezan. Lan hori egiteaz Musika Eskola arduratuko da. Ekainaren 17an, omenaldi modura, musika emanaldia antolatuko dute.

Irakurle klubaren lehen bilera

Euskarazko Irakurleen Kluba otsailaren 6an elkartuko da, Alaine Agirre idazlearen "X hil da" liburuaren gainean jarduteko. Kluba bi hilabetez behin elkartuko da, astelehenean, arratsaldeko 7etan. Tarteka, gainera, aukeratutako liburuaren idazlea ere gonbidatuko dute.

"Dudas razonables" antzezlan

Otsailaren 18an, arratsaldeko 20:00etan, "Dudas razonables" antzezlan eskainiko dute antzokian, Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta. Banarte Antzerki Taldearen azken obrak epaia emateko ahaleginean diharduen ahaimekin baten historia kontatzen du. Eduardo Pombar soraluzetarra da aktoreetako bat.

ERREZETA



Iurdana Laskurain
TXURRUKA
JATETXEKO
SUKALDARIA

Hurrak eta txokolate zuridun soufflea

Osagaiak:

6 arrautza
100gr glass azukrea
175gr irina
175gr praline edo urra txikitua
200gr gurina
200gr txokolate zuria



Jarraitu beharrekoko pausoak:

1. Arrautzak eta glass azukrea harrotu eta poliki-poliki irina bota. Ondoren, guztia bol batean nahastu. Ondo nahastuta dagoenean, gehitu praline edo hurra txikitua oreari.
2. Gurina berotu eta urtzean, txokolate zuria gehitu. Ondo nahastu.
3. Bi ontzietako handi batean nahastu.
4. Flan-ontziak hartu (edo bakoitzak eskura dituenak) gurin eta irinarekin igurtzi eta aurretik osatutako orearekin bete ontziaren erdia baino gehiago.
5. Labean sartu 180 gradutara, eta 8-10 minutu barru labetik atera.

DISKO PROPOSAMENA



Ina Arriola

Chris Robinson Brotherhood

"If you lived here, you would be home by now"

Talde Estatu Baturarraren EP honetan, Black Crowes taldeko sortzaile eta abeslari oiha den Chris Robinsonen azken lana entzun dezakegu. Neal Casal kitarra-jole famatuarekin batera, Estatu Batuetako hegoaldeko Rock-a, puntutxu psikodelikoa batekin jorratzen du. Pedal-steelak ematen duen Country kutxu horrekin,

taldearen dinamika berritu eta bide berriak aztertzen diharduela soma daiteke. Soinu paregabea duen lan labur hau entzutea ezinbestekoa da Rock and Roll-a maite dugunontzat!

LIBURU PROPOSAMENA



Jasone Osoro

X hil da Alaine Agirre

Helduei zuzendutako bigarren liburua du hau Alaine Agirre idazle bermeotarrak. Odol mamituak eleberrian bezalaxe, hemen ere istorioa konplexurik gabe azaltzen du: ez dio beldurrik beldurra agertzeari, ahula azaltzeari, zelaok, traizioa, infidelitatea... Gaiaren ardatza obsesio bat da: protagonistaren beldurrik handiena da bere bikotea hiltzea. Hori gertatuko balitz, zer egingo luke? Nola biziko litzateke? Horren beharrezkoa al da bikotea

zoriontsu izateko? Zer da, finean maitasuna? Barne galdera askori erantzuten saiatzen da egilea. Nobela labur honek hausnartzera garamatza, estilo zuzen, zintzo, bizi eta eder baten bidez. Alaine Agirrek badu ahots propioa.





1971ko izozteak

1971ko urtarrilean sekulako hotza egin zuen Euskal Herri osoan, eta ia Europa guztian. Datuek diotenez, termometroek -7°tik beherako minimoak erregistratu zituzten.

Egun haietan herrian atera zituzten argazkiek ondo erakusten dute egin zuen hotzaren neurria. Lehenengo

argazkian, butano bonbona (betea omen) ageri da baserriko putzuan. Bigarren argazkikoa, izoztutako ibaia da (hala ziurtatu zigun Jesus Txurruka soraluzetarrak). Hirugarrenean, berriz, izotz kandela luzeak ageri dira. Haiek bai hotzak!

Iturria: Jesus Txurruka.

Silvia María Segoviatik Soraluzera



Noiz etorri zinen Soraluzera?

2004. urtean etorri nintzen Arrasateko mutil bat ezagutu nuelako Segobian. Bakoitzaren lan-aukerak aztertu ostean hona etortzea erabaki genuen.

Zergatik aukeratu zenuten Soraluze?

Lehen aukera Arrasatera joatea zen, bikotekidea bertakoa zelako, baina momentuko aukera ekonomikoaren arabera, azkenean katalogo bati begira aukeratu genuen, hona etortzea kar-kar-kar...

Zer gustatu zaizu gehien?

Herriko jendea, ohiturak eta giroa. 12 urte dira etorri nintzela eta gaur egun ez nintzateke Segoviara bueltatuko, plaentxiarra sentitzen naiz eta oso eroso nago bertako egunerokoa.

Zelakoak izan ziren lehen urteak?

Ni oso alaia naiz eta asko gustatzen zait jendearekin harremanetan jardutea inongo aurreiritzirik barik. Nire lehen koadrila jubilatuko koadrila maitagarri bat izan zen. Denborarekin nire adinekoagoengana gerturatzen joan naiz kar-kar-kar...

Zelakoak gara euskaldunak?

Pentsamolde eta jarrera zabalekoak dira nire herrikoekin alderatuta.

"Soraluzera etortzea katalogo bati begira aukeratu nuen"

Segovian pentsaezina da eguerdian jubilatuko batzuekin pote batzuk hartzea. Hemen erreza da lagunartea zabaltzea eta horrek asko lagundu dit.

Zer botatzen duzu faltan?

Familia eta nire jaioterria. Urteak joan ahala geroz eta gutxiago. Esaldiaren zentzu onenean noski; izan ere, gero eta soraluzetarrago sentitzen dut nire burua. Bertara eginda nago.

Zela konpondu zara euskararekin?

Euskara ez jakiteak mugak jartzen dizkio kanpotik datorrenari. Lan batzuetan alboratua izan naiz hizkuntza ez jakiteagatik eta hori mingarria da. Dena den, orain jantoki batean dihardut lanean, eta, bertan, erabilgarri zaizkidan hitzak ikasi ditut, gustatzen zait.

Betirako Soraluzen?

Momentuz bai, asko gustatzen zaizkit Soraluze eta Euskal Herria.



1. Ane (alaba), Manuel eta Alejandro ilobekin.
2. Segobiako akueduktua.
3. Herriko jaietako moztorro lehiaketa.
4. Oscar eta Carlos lehengusuak, Ane alaba eta Aitor eta Carmen ilobekin osabaren ortuan.

25 urte Santa Eskean

1992an, herriko gazte talde batek Santa Ageda eskean irten zuen baserriaz baserri. Astoa lagun, koplak kantari jardun zuten Ezoz eta San Andres auzoko baserrietan barrena. Olatz eta Unai Larreategi trikitilariekin batera, Ainhoa Artolazabal, Sabin Mendizabal, Loiola Madera, Maialen Galarraga, Jon Beristain eta Egoitz Unamunok berreskuratu zuten aspaldi galdua zen ohitura. Orduetik hogeita bost urte pasatu dira, eta urte guztiotan, urtez urte, hutsik egin gabe jarraitu diote ibilari. Aurten otsailaren 4an aterako dira, Santa Ageda Bezpera egunean, goizeko 09:00etan Iratxo gozo-dendaren paretik, Eneritz Artetxe bertsolari azkoitiarra lagun dutela. Egun horretan bertan aterako dira Musika Eskola (12:00etan) eta Ezoziko Ama Abesbatza ere txistulariekin (19:30ean). Etxe guztiak kantuz pozteko ohitura indartsu dago herrian!

Iturria: Egoitz Unamuno.





Leire Lesboseko hondartzan.

Hilabete Lesbosen



Leire Garcia

Duela hilabete batzuk Greziara joan nintzen, ahal nuen neurrian, errefuxiatuei laguntzen saiatzera. Lesbos irlara joate erabaki nuen, boluntario moduan. Hainbat erakunde begiratu eta gero, ERCI-rekin (*Emergency Response Centre International*) kontaktuan jarri, eta bilaketa- eta salbamendu-taldean sartu nintzen. Hemendik irten aurretik, hilabetez, errefuxiatuak itsasoan bilatu eta

salbatzera nindoala baino ez nekien. Hori bakarrik jakinda, eta gaiaren inguruko oinarritzko nozioekin, motxila hartu eta harantz abiatu nintzen.

Bertara heldu nintzenean, boluntarioek dena azaldu zidaten. Arratsaldeko 20:00etatik goizeko 10:00etara, kostatik zehar edo itsasotik, errefuxiatuen ongizatea bermatzea izan zen burutu nuen lana. Horretarako, hainbat txandatan banatuta, kostatik itsasoa bijilatzen eta itsasoan salbamenduko bote baten barruan lan egin nuen. Gu bizi ginen etxean, irratia piztuta geneukan 24 orduz, Grezia edo Turkiako kostako

edonork esaten zuen edozer, entzuna izan zedin, eta behar izanez gero, gu abian jar gintezan. Egunean zehar, beste hainbat lan egiten nituen: adibidez, jendeak emandako erropak sailkatu eta errefuxiatuen kanpamenduetan banatu. Horrez gain, astean zehar mota askotako formazioa jasotzen genuen eta entrenamendu fisikoa egin ere bai.

Hainbat herrialdeko 11 boluntario inguru bizi ginen etxe berdinean. Hizkuntza komuna ingelesa izanik, oso interesgarria zen errefuxiatuen gaiaren gaineko iritzi eta ikuspuntuak trukatzera. Egunetik egunera, nekea handiagoa zen, lo falta handia, eta eguneko



“Hainbat herrialdeko 11 boluntario inguru bizi ginen etxe berdinean”

“Txandarik ez genuenean neoprenoaren ondoan lo egiten genuen”

momentu gehienetan jasaten genuen tentsioak ere eragiten zigun. Txandarik ez genuenean neoprenoaren ondoan lo egiten genuen. Lo geundela bote bat heltzen bazen, gertu egoteko. Gauetan, beti egoten zen batenbat etxeko irratia iren ondoan, zeozer entzunez gero, koordinatzaileari deitu eta etxeko danak esnatzeko.

Goiz baten, bigarren txanda egiten nihatuela, lehenengo botea ikusi nuen eguna ez zait inoiz ahaztuko. Lesbosetik egunero ikusten nuen egunsenti zoragarri batekin batera etorri zen bote hura. Segituan prismatikoak hartu eta han ikusi nituen 30 pertsona inguru, 8 pertsonarentzako prestatuta zegoen bote baten. Inpaktu handia egin zidan. Irratitik abisua eman, eta dena prestatu genuen: ura, mantak, erropa lehorra... Zorionez, inor ez zen galdu, ezta hil ere, denak ondo heldu ziren islara. Baina haien aurpegiak dena esaten zuten, neke aurpegiak ziren batzuk, triste aurpegiak beste batzuk, Europara heltzearen ondorioz sortutako zorientasunezkoak beste batzuk... Entzuten ziren negarrak ere.

Gogoratzen dut oso nerbiosa jarri nintzela, momentuan ez dakizu zer egin, nola jokatu, dena ondo egitea nahi duzu-eta... Handik gutxira, ohikoa den moduan, autobus bat etorri zen eta errefuxiatuak errefuxiatuen kanpalekura eramane zituen. Batzuk, poliziarengandik ihes egitea lortzen badute, ez dira autobus horietan sartzen, eta beste soluzio batzuk bilatzen saiatzen

dira, euren kabuz. Baina oso zaila da, gainera, poliziak, behar den indarra erabiliz, autobusean sartzera behartzen dituzte. Momentu horietan, arrazakeria ere ikusten da hainbat pertsonen partetik... oso tristea da.

Oso gogorra da holako ezbeharretatik ihes egin eta gero, pertsona hauek Europara topatzen dutena. Bote horietan datozen pertsonen gehiengoak ez daki igeri egiten, ez dute inoiz itsasorik ikusi, gaez egiten dute bidai arriskutsu hori, haien seme-alabekin, jaioberriekin, bakarrik... Gainera, Europara etortzeko saiakera bakoitzeko 1000 – 5000 euro bitartean ordaindu behar izaten diete mafiei, bote ziztrin baten sartzearren truk, baina horrek ez du bermatzen Europara heltzea. Bi herrialdeak banatzen dituen 16km horiek hilgarriak dira askorentzat. Asko eta asko hiltzen dira itota edo hipotermiak jota, eta “zorte ona” dutenak Lesbosera edo beste isla batera heltzen dira, ondoren, inork zehaztuko ez dien denbora mugagabe batez errefuxiatuentzako kanpaleku baten bizirauteko. Aipatu behar dut hemengo komunikabideetan gutxi azaltzen den arren, Lesbosko errefuxiatuentzako kanpaleku batetik milaka pertsona desagertu direla (batez ere, haur eta emakumeak). Zela liteke igeri egiten ez dakien jendea isla batetik desagertzea? Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

ZORION AGURRAK

**Aitzok Quilez Zabala**

Urtarrilaren 28an, 4 urte. Zorionak eta muxu asko! Etxekoan partez.

**Satur Gil Bermejo**

Abenduaren 25ean, 75 urte. Urte askotarako! Maite zaitugu! Zure familia.

**Uxue Ros Gil**

Urtarrilaren 5ean, 6 urte. Zorionak printzesa! Maite zaitugu! Zure familia.

**Nerea Atxotegi**

Urtarrilaren 18an, 18 urte. Zorionak eta segi beti bezain jator eta alai! Etxekoan partez.

**Alain Lopez Pellitero**

Urtarrilaren 10ean, 11 urte. Zorionak! Asko maite zaitugu. Musu asko! Zure familiaren partez.

**Peio Aranzeta eta Imanol Agirre**

Urtarrilaren 20an eta 21ean, 11 urte. Zorionak biori bihotz-bihotzez! Guraso, anai-arreba eta lagun guztien partez.

**Naroa eta Ander Agirregomezkorta**

Otsailaren 8an eta 9an, 4 eta 6 urte. Zorionak bikote! Patxo potolo bat etxeko danon partez.

**Ilargi Alberdi Casares eta Iosune Casares Alarcia**


Abenduan 17an 10 urte eta abenduan 24an 43 urte! Zorionak bikote, muxu goxo bat! Etxekoan, eta bereziki, Ametsen partez.


JAIOBERRIAK

**Julene Andrade Hernandez**

Urtarrilaren 2an jaio zen.

ESKELAK

ESKER ONA	
<p>Trinidad Larrañaga Echave</p> <p>Urtarrilaren 3an hil zen, 103 urte zituela.</p>	
<p>Beti gure bihotzean. Eskerrik asko egunotan zuen babesa adierazi diguzuen guztioi.</p>	
<p><i>Etxekoak</i></p>	

ESKER ONA	
<p>Pedro Jorge Vicho</p> <p>Urtarrilaren 10ean hil zen, 80 urte zituela.</p>	
<p>Maitasun eta umore emari agortezina, laga diguzu ondareztat. Maite zaitugu.</p>	
<p><i>Etxekoak</i></p>	

ESKER ONA	
<p>Miren Eguren Larreategi</p> <p>Urtarrilaren 13an hil zen, 88 urte zituela.</p>	
<p><i>Ezozin gora Arritxa, behixak larrian dabilta, tximiniaren ahotik doia erretako haritza.</i></p> <p><i>Sustar sakonen emaitza, emon deskuzu bizitza, hamar adarren baitan biziko da orain zuhaitza!</i></p>	
<p><i>Etxekoak</i></p>	

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Trinidad Larrañaga Echave
Maria Isabel Sebal Aguirre
Pedro Jorge Vicho
Rufino Albusua Arenaza
Miren Eguren Larreategi
Alejandro Rodriguez Pozas
Tomas Rodriguez Escudero

Jaiotakoak

Julene Andrade Hernandez

IRAGARKI LABURRAK

Goizetan Gasteizera joateko norbait

Goizetan Soroluzetik Gasteizera (lanera joateko) eramango nindukeen norbaiten bila nabil. 07.45ak inguruan han izan beharko nintzateke (Belen Mendicute). E-posta: biem@euskalnet.net

OHARRAK

Urteberriko saria

Zozketa

- Sari nagusia (30.000 €) 55.513 (Enkarterriak)
 - 10 Sari (1.000€) 145.022 (Debabarrena)
- Gure Esku Dago*

Odol ematea

Ostirala, urtarrilak 27.

18:30ean Itxaropena elkartean.

San Blas eguneko lehiaketa

Aurten ere, otsailaren 3an, San Blas egunean, opilen lehiaketa egingo da. Lehiaketa goizeko 12etan hasiko da, Plaza Berrian, eta izen-ematea aurrez udaletxean (943753043) egin ahal izango da edota egunean bertan. *San Blas* opilak bedeinkatzeko elizkizuna berriz 11:00etan egingo da.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

605 706 086 (deitu edo bidali whatsapp-a)

aldizkaria@pilpilean.com

Xabier Leteren testuak +

Jokin Oregi eta
Amaia Irazabalen
testuak

Irakurketa dramatizatu, harparekin

Ane Artetxe (harpista)

Amaia Ruiz de
Galarreta (aktorea)

Amaia Irazabal (aktorea)

Otsailak 3,
barixakua

22:15etan

Soraluzeko
herriko
antzokian

Sarrera: 3€

Antolatzaileak:



GASTEIZEKO
HOTSAK



PIL-PILEAN



Xabier Lete

Jokin Oregi 2011